

# ORUEKO JESUKRISTO

*Doinua. "Uso zuria"*



1

Beso biak kurutzean  
ahal dan besteko luzean.  
Hau besarkada bero samurra  
Zugana hurreratzean!  
Aitatxo onak bere semea  
hartzen dauan lez etxean.

2

Senitarteko egunez  
guk urtero ohi dogunez:  
Zure ondoan alkartu gara  
egiazko maitasunez;  
zaindu gagizuz bakez ta pozez  
eta kristinau zentzunez.

3

Bihotz ta beso zabalik,  
inor balego makalik.  
Jesus, zuk guri ta guk alkarri  
jarrai laguntzen apalik;  
senitartea baino hoberik  
ez da munduan magalik

4

Zer da ikusten doguna?  
huts-hutsean maitasuna.  
Dana emon ta dana parkatu,  
nahiz txarra izan erantzuna;  
Zu ezagutuz, dakigu nor dan  
aspertzen ez dan Laguna.

5

Zuk esana da behinola:  
konparatuz frutarbola:  
Frutu onik ez dakarren hori  
tente alperrik dagola;  
guk ez daigula inoiz baztatu  
Bizian Gora eskola.

6

Jesukristo Orueko,  
azkenean esateko:  
Zu gugaz eta bardin gu Zugaz  
gaitezen senitarteko;  
agur ta laster izan gaitez  
pozik alkar ikusteko.

A. Martzel